



**GOBERNU JUNTAK 2018.01.23an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABAETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABAETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2018ko urtarrilaren 23an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2017ko abenduaren 19an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2018ko Aurrekontu Orokorra, Plantila eta Lanpostuen Zerrenda onartzea

2018. ekitaldiko Aurrekontu Orokorren behin betiko zirriborroa aurkeztu du kontu-hartzaileak.

Mankomunitateko Estatutuen 25. artikulua araberako Aurrekontu Orokorra onartzeko gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar da.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Hasierako onespina ematea Mankomunitateak 2018. ekitaldirako Aurrekontu Orokorri, kapituluaren arabera ondorengo laburpenarekin:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Pertsonal gastuak	2.411.645,22 €
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	6.173.782,46 €
3	Finantza gastuak	101,00 €
4	Transferentzia arruntak	357.402,01 €
6	Inbertsio errealak	1.059.063,00 €
7	Kapital transferentziak	0,00 €
8	Aktibo finantzarioak	760.820,00 €
9	Pasibo finantzarioak	119.251,09 €
	GASTUAK GUZTIRA	10.882.064,78 €

SARREREN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak	0,00 €
2	Zeharkako zergak	0,00 €
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.604.038,26 €
4	Transferentzia arruntak	7.326.891,43 €
5	Ondarezko sarrerak	18.501,00 €
6	Inbertsioen salmenta	15.000,00 €
7	Kapital – transferentziak	1.043.251,09 €
8	Aktibo finantzarioak	10.820,00 €
9	Pasibo finantzarioak	863.563,00 €
	SARRERAK GUZTIRA	10.882.064,78 €

2. Aurrekontua gauzatzeko araua onartzea.
3. Pertsonal Batzordeak proposatutako 2018. urterako Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda ere Aurrekontuarekin batera onartzea.
4. Aurrekontuaren espedientea 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartuzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

2.2.- Transferentzia planta ez erabiltzeagatik, alta kostuak GHKri ez kobratzea hitzarmenaren zai

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, Beñardo Kortabarria eta Iraitz Lazkanoren abstentzioarekin (akta onartzerakoan egindako zuzenketa), ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari idatzi bat bidaltzea ondorengo testuarekin:

“2017ko otsailaren 15eko Lehendakari gutunaz Kontsortzioari jakinarazi zitzaion, Debagoieneko mankomunitateko desadostasuna 2017ko urtarrilaren 31ko datarekin GHK hartutako erabakiaz, bestalde berretsi Kontsortzioak ez duela daukagun hitzarmenaren zazpigarren klausula bete.

atez ere, "Arrasateko Udalak baimenak luzatzeari uko egiteak ez du inola ere esan nahi aipatu hitzarmenetik eratorritako eta kontsorzio horrek bete gabeko betebeharrak indargabetzen direnik."

Gutunean esan bezala, 2007ko martxoaren 14ko eraketa hitzarmenaren oinarritzko konpromisoak dira betetzeke daudenak.

Horregatik martxoaren 14ko Mankomunitateko Gobernu juntan Hondakinak Elgoibarreraino eramateko kontratu aldaketa onartu zen, Kontsorzioak aldaketa honen kostuak bere gain hartzeko baldintzaz.

Erabaki honekin fakturatu ditu apiriletik urrira arteko kostuak Mankomunitateak Kontsorzioari.

Azaroan Kode Zibileko 1195 eta 1196 artikulua aplikatuz kobratu zitzaizkion kostu hauek kontsorzioari.

2018ko urtarrilaren 9an, 3 sarrera zenbakiaz, abenduaren 20ko Kontsorzioako lehendakariaren gutuna jaso zen, non 3 baieztapen egiten diren.

- 1) Faktura batzuen kopurua kobratzeke dutela.*
- 2) Guk bidalitako fakturak era ilegalean kobratu direla.*
- 3) Mankomunitateak ez duela eskubiderik kostu hauek GHKri eskatzeko.*

Honi erantzunez, lehen baieztapeneko kopurua jakin, badakitela bigarren baieztapeneko fakturekin bat datozela eta esan bezala, goian aipatutako legediaren baitan eta legez kobratu direla.

Hirugarren baieztapena oso larria da, GHK uko egin nahi baitio bere erantzukizunei alta kostuak Mankomunitate honi egotziz. Esan bezala, GHKri dagokio eratze unetik ondoren sinatutako hitzarmen guztiek adierazten duten bezala alta kudeaketa Debagoieneko mankomunitate bertatik.

Honen jakitun, 2017ko abenduaren 26an kostu hauek bere gain hartzearen proposamena egin du GHK bere batzarrean.

Debagoieneko Mankomunitateak akordiorako borondatearen erakusgarri, bere inongo eskubideri eta bereziki alta kudeaketa Debagoiengan bertan hastearen eskubideari edo dagokion kalte-ordainari 2017ko apirilaren 1etik, uko egin gabe:

- o Apiriletik urrirako kostuen legezko kobraketa atzera botako du.*
- o Ez ditu urritik aurreragoko beste kostuak fakturatuko akordioaren zain, honek dagokion eskubideak iraungitzea ez duelarik adieraziko.*
- o Akordioa lortzean, apiriletik urrirako fakturak akordioan hitzartutakoaz likidatuko dira".*

2.3.- Foru Kontratazio Zentrala: hainbat espediente berri

Idazkariak Foru Kontratazio Zentralak irekitako bi kontratazio espedienteen berri eman du: itzulpen zerbitzuarena eta inprimagailuena..

Aipatu espedienteen baldintzak ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ERABAKI DU:

- Espediente bi hauei ez atxikitzea.

2.4.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Ondorengo bermea itzultzea:

Enpresa: OLDBERRI S. COOP.

Kontratua: Ehunkiak eta paregarriak kudeatzeko kontratua (2011)

Zenbatekoa: **3.000 €.**

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Zur-hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea; proposamen bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko azaroaren 14an egindako bilkuran, bide publikoan, Garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste zerbitzu batzuetan bildutako zur hondakinak kudeatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu da, eta onartu egin da, ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarena.

Aurkeztutako eskaintzak Baldintza Agirietan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzenez, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita A gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.2.- Plastikozko hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea; huts deklaratzea

2017ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Mankomunitate honetako Gobernu Juntak Garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste zerbitzu batzuetan bildutako plastikozko hondakinak kudeatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean proposamen bakarra aurkeztu zen, BAÑU-ETXE, S.L. enpresarena.

Kontratazio Mahaiak bigarren gutun-azalean aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertzerakoan, aipatu enpresari 3 laneguneko epea eman zion pleguan eskatutako hainbat informazio aurkezteko. Lizitatzailleak erantzun du esanez aurkeztutako proposamena bertan behera uzten duela, ezin izango baitu zerbitzua eman eskainitako prezioan, plastikoaren irteera asko zaildu delako.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Lizitazio hau huts deklaratzea.
2. Gaur egungo plastikoaren egoera eta aukera desberdinak aztertu eta Gobernu Juntaren hurrengo bilkurarako baldintza berriak zehaztu lizitazio prozedura berri bat irekitzeko.

3.3.- HIRIGINTZA, S.A. enpresarekin sinatutako “Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren proiektua” gauzatzeko obraren lan zuzendaritza kontratuari uko egitea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko ekainaren 13an, “Epeleko zabortegiko isurketa-gelaxkaren 2 fasearen itxiera partziala eta 3 fasearen sorreraren Proiektua” gauzatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen, dagokion esleitze-prozedura irekitzea erabakiz.

2017ko ekainaren 20ko 117 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen lizitazio iragarkia. Era berean, lizitazio horri dagokion proiektua eta baldintza-agiri administratiboa Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratu ziren.

Epeleko zabortegian Eusko Jaurlaritzak egindako azken ikuskaritzaren emaitzak ezagutu ondoren, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak txosten bat idatzi zuen non, besteak beste, esaten zuen egoera berria aztertu eta zabortegiaren ustiapenerako aukera ezberdinak aztertzea ezinbestekoa zela.

Hau honela izanik, ahalik eta kalte gutxien eragiteko, interes publikoko arrazoiak zeudela kontuan hartuta, Mankomunitateko lehendakariak ateratako lizitazioari uko egitea erabaki zuen, eta lehendakariaren ebazpen honen berri eman zitzaion Gobernu Juntari.

Ikusirik 2017ko urtarrilaren 23an, zegokion prozedura jarraitu ondoren, Mankomunitateak HIRIGINTZA, S.A. enpresarekin sinatu zuela aipatu proiektua



idazteko, eta obra zuzendaritza, segurtasun eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza egiteko kontratua, Gobernu Juntak, 2017ko uztailaren 11n egindako bilkuran zera erabaki zuen:

1. *“Lehendakariaren ebazpena berrestea, aipatu proiektua garatzeko obraren lizitazioari uko eginez.*
2. *Epeleko zabortegiari dagokionez, egon daitezkeen aukera desberdinak teknikoki aztertu eta iraileko Gobernu Juntaren bilkurara proposamen bat ekartzea.*
3. *HIRIGINTZA, S.A. enpresarekin sinatutako aipatu obraren lan zuzendaritza kontratuan atzera egiteko dagokion espedientea irekitzea.”*

Erabaki hau betez, zegokion espedientea ireki zen, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 224.1 eta 308.b artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege-Dekretuaren 109 artikuluan jasotakoaren arabera, HIRIGINTZA, S.A. enpresari hamar egun naturaleko epea eman zitzaion egokiak iruditzen zitzaizkion alegazioak aurkezteko. Honek ez du alegaziorik aurkeztu.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 223, g) eta 308, b) artikuluetan jasotakoaren arabera, Epeleko zabortegian zaborra botatzeko gelaxkan 2. fasea partzialki ixteko eta 3. fasea egiteko proiektuaren obra zuzendaritza, segurtasun eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza eramateko HIRIGINTZA, S.A. enpresarekin 2017ko urtarrilaren 23an sinatutako administrazio-kontratuari uko egitea, erabaki honetan jasotako arrazoiak direla eta.
2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 309.3 artikulua dioenaren arabera, Mankomunitateak sinatutako kontratuari uko egiteagatik, kontratistari egin gabe gelditu diren lanen prezioaren %10a dagokionez, eta kontratuan jasotako obra zuzendaritza osoaren (obra zuzendaritza, osasun eta segurtasun koordinazioa eta ingurumen aholkularitza) prezioa 9075 € izanik, HIRIGINTZA, S.A. enpresari 907,5 € ordaintzea.

3.4.- Informatzaileak

Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, Landerrek, Batzordearen proposamenaren berri eman du, hau da, gaur egun dauden bi informatzaileei beste urtebeterako izendapen bat egitea.

Idazkariak esan du, legez ez dela posible beste bitarteko izendapenik egitea, informatzaile hauek guztira bost urte baitaramatzate behin behineko lan hauek egiten, eta Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuak dio behin behineko Programak garatzeko bitarteko izendapenek ezingo dutela 3 urte baino gehiagoko iraupenik izan.

Kontuan hartuz orain izendapen berririk ez egiteak Zerbitzuan sortuko lituzkeen eragozpenak, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Sei hilabeteko epean Ingurumen Zerbitzuko behin betiko beharrak definitu, dagokion lanpostuak sortu eta legediak ahalbidetzen duenean behin betiko bete.
2. Bitartean, sei hilabete hauetarako, 2018ko otsailaren 1etik uztailaren 31 arte, ondorengo bitarteko izendapenak egitea:
 - O.I.A. eta A.E.E. Mankomunitateko Hondakinen Informazio Bulego zentralizatuan aurrez-aurreko zein telefono bidezko arreta eskaini, udalerrietako informazio bulegoak koordinatu eta hondakin bilketari dagokion ikuskaritza lanak egiteko.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berriak eta luzapenak

- Eskaera berria; M.C.A.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: marka ezberdinetako arroparen ordezkari komertziala.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- M.C.A. andreari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (4-IM) industri modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Eskaera berria; X.U.I.

Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: aholkularitza espezializatua kooperazio eta kooperatibismoan. Azterketak eta ikerketak.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:



- X.U.I. jaunari baimena ematea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (5-AR) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Luzapen bat; J.J.I.Y.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2019ko urtarrilaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 3-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, J.J.I.Y. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko urtarrilaren 17ko erabaki bitartez.

- Fidantza bat bueltatzea; R.C.S.

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- R.C.S. ekintzaileari bere egunean jarritako 381,15 €ko fidantza bueltatzea.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Idazkariak esan du ezin izan duela lehendakaritzaren ebazpenen laburpenik prestatu aurreko astean gaixorik egon delako. Beraz, hurrengo bileran emango dela ebazpenen berri.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Beñardok eskatuta (akta onartzerakoan egindako zuzenketa), GHKri galdetuko zaio ia noiz irekiko den Epeleko Planta.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.